DOHAN ZEURE ETXERAKO

...eta Kitto!

1989ko Abuztua / 8.Alea

EIBARKO UDALA — EUSKARA BATZORDEA

EIBARKO UMOREA

Umoria. Hori baino gauza ederragorik ba ote dago? Asko esta askorentzat umoria osasunaren parekoa dugu. Umore gabekoak osasun arazoak eukitzeko arriskuan daudela ere askotan entzun dugu, erremiñez ezin dela bizi! Hor dago bermiotarren esaera: ''Umorerik gabeko iraultza, gorringorik gabeko arrautza''.

Opor sasoi hau ondo pasatu eta pentsatzeko ere aproposa denez, ondoren datarroen artikulua irakurtzeak mesede egingo digu denoi.

Sasoi hori gehiegi bizi izan ez badugu ere, imajinatzen dugu gerra aurreko edo osteko eibartar kudadrilla bat tabernarik taberna txikiteoan. Hor dabiltza adar jotzaile natoa, benetan edo gezurretan dabilen igartzen ez zaiona, zorrua: entzun entzun egin eta ixil ixilik egoten dena baina gutxien uste denean trastekeriarik haundiena egiten duena, kazari amorratua, beti tiro hots baten dabilena, sindikalista: langileen eskubideak aldarrikatzen eta ugazaba toriatzen dakiena, haundiagoa, botako aldamenekoari ziria sartuko adar jotze finagoa egingo, zeinek barre algara haundiagoa eragingo. Azken batean umorea izan da deporte nazionala, orain beste bideo, telebisiño eta prosoziño izan ez den garai baten.

Eibartar asko ezagutzen dut, baita EGAdunak eta ''Sakontze Maila''dunak ere, Eibarko euskaran egindako bi umore liburu zoragarri irakurri ez dituztenak. Juan San Martinen ''Zirikadak'' eta ''Eztenkadak'' liburuez ari naiz.

Baina nola egon daiteke Eibarko euskalzale bat liburu horiek irakurri gabe? ez dauka barkaziorik. Egia da bi liburu horietaz gozatzeko —eta liburu gutxirekin bezala goza daiteke— komenigarria dela kanpotarren uholde haundiak etorri aurretiko bizimodua ezagutua izatea, 1960. urtea (fetxa bat jartzearren) baino lehenangokoa. Gero, erdara, telebista, autoa, kreditoak, ordu extrak, txori eskasidadea, erreka zikinak... nagusitu ziren eta goian ikusi dugun kuadrilla horri Ego edo Deba ibaietako arrainei bezala zikindu zitzaizkien urak.

''Zirikadak'' edo ''Fernando Plaentziarra'' irakurtzean ikusi dut adineko jendea egundoko barre algarak egiten eta ostera, gazteak, ipuin bera irakurri eta patata baino serioago, ''hau zan dan?'' galdetuz. Oso lan txarra da gero hari grazia non dagoen esplikatzea, umoreaz teorizatzea lan txarra den bezalaxe, txisteak esplikatzearen antzekoa bait da. Bai, esan daiteke umore urbanoa dela Eibarkoa, baserri giroko Pernando Amezketarrarenaren oso bestelakoa, baina hori gauza jakina da.

Eibartar irakurle, nahi baduzu zure herriko umoreaz gozatu, hurbildu zaitez oraindik bizi bizirik dagoen adineko eibartar zelebreen kuadrilla batera, eta entzun. Barreak garantizatuak daude. Eta irakurri, asko bait dago argitaraturik. Hona nik ezagutzen dudan bibliografia:

BIBLIOGRAFIA

- **Pernando Plaentxiarra.** YON ETXAIDE. Donostia, 1957.
- **Zirikadak.** JUAN SAN MARTIN. Edit. Itxaropena, 1960. (1984an ELKARek birrargitaratua)
- **Eztenkadak** JUAN SAN MARTIN. Edit. Itxaropena, 1964
- **Fernando Plaentziarra** JUAN MARTIN ELEXPURU Elkar, 1984
- **''Eibar'' aldizkaria** Don. PEDRO ZELAIAK zuzendua



Juan Martin Elexpuru


HAIN ONAK OTE GARA BA!

Norberaren burua goratzea eta laudorioz betetzea ez da izan gure estiloa, eta ez da izango. Baina geure apaltasun osoz esan beharra daukagu oso pozik gaudela orain arte ''... eta Kitto''k egin duen bidearekin. Horren sari moduan geuk egindako artikulu batek, hain zuzen ere 5. zenbakian Candido Egurenekin egindako elkarrizketarekin, Andoaingo Udalak antolatutako ''Ricardo Arregi'' Kazetaritza Sariketako ''Herrietako Aldizkariak'' ataleko I. Saria eskuratu dugu. Eskerrikazo eta Zorionak Candido eta irakurle guztioi.

Sari honek gure animoak handitu egingo ditu eta orain arteko bideari eusteko eta hobetzeko indarra emango digu.

DENBORA PASAK

HITZ GEZIDUNAK



ERREGINAREN KOFAUA

Erantzun guztiak sei letrakoak dira eta zenbaki bakoitzaren inguruan kokatu behar. Hitzak ordu orratzen arabera osatu behar dira, abiapuntua zenbaki bakoitzaren gain eskuinaldeko letra delarik beti. Laguntzarri gisa, lehen abialetra eta hitz oso bat emanik dituzu.




1 Ikastegia
2 Hitza
3 Urteko hilabetea
4 Harila
5 Hegaztien haztokiak
6 Janzki japoniar
7 Trankila
8 Mendikatea ezaguna
9 Asto-lasterra
10 Leiho barandadun
11 Ikas liburu
12 Laborantza tresna
13 Bilboko leku ezaguna
14 Balio
15 Bizkaitarren samak
16 Sintetiko
17 Kirol marka
18 Likido hartzen
19 Isurki
20 Itsas arrain (sturio)
21 Dardaran
22 Karrikako
23 Armeniako mendi ezaguna
24 Lanbide atzizkia
25 Askea
26 Bizkaieraz, alokairu
27 Logura
28 Izkutuzko aberastasuna
29 Nahigabe sakona
30 Sorbalda

GURUTZEGRAMA TTIPIAK

Ezker eskuin: 1.- Lardaskatu. 2.- Zerbaitetan jakitun direnak. 3.- Zein lekutan. Buru hitz elkarketan 4.- Taldea. 5.- Joan aditzaren erroa. Fruitu mota. 6.- Arnasgabetu. Borobila. Bat. 7.- Hozkada.

Goitik behera: 1.- Izkina. 2.- Gurtu. 3.- Usain txarra. Osmioa. 4.Kanpo. Musu, haur-hizkeran. Potasioa. 5. Euskal lurralde hau gabe, zer egingo zuen Benito Lertxundik?. 6.- Ohol. Bostehun. 7.SESBko errepublika.



Ezker eskuin: 1.- Pila bat, asko. 2.- Sarrera, hitzaurre. 3.- Laboreak biltzeko egintza. Kriptona. 4.- Itxura, tankera, Kontsonantea. 5.- Arrantzan erabiltzen den metalezko pieza. Gauerokoa. 6.- Purrut. 7.- Energia sortzeko erabili ohi den elementua.

Goitik behera: 1.- Aukeratu. 2.- Behatz, eri. 3.Makina baten hausketa edo hondaketa. 4.- Erregela. Radona. 5.- Bi. Pozik. 6.- Amerikar arrazistak. Auto iparraldeko grafian. 7.- Arteriarik handiena. Angström.

SARIKETA

Ba al dakizu non dagoen argazkian agertzen den irudia? Beno hori hala bada eta IKUSONIKek oparituko duen diska irabazi nahi baduzu bidal ezazu eskutitz bat (pertsonako bat onartuko da bakarrik helbide honetara zeure datuak eta telefonoa emanez!

EIBARKO UDALA
EUSKARA ZERBITZUA

''...eta Kitto'' Sariketa
7.Aleko sariketaren erantzuna ''Bista Eder kalean dago, Errekatxu kaleko hasieran''
SARITUA. NURIA IRAOLAGOITIA, Bista Eder Kalean bizi dena. HURRENGO SARIKETARAKO IRAILAREN 15erako BIDALI BEHAR DIRA ERANTZUNAK. SORTE ON!



DISKA SALDUENAK

IKUSONIK

EUSKAL MUSIKA

OSKORRI. «Datorrena datorela»
DELIRIUM TREMENS. «Ikusi eta ikasi»
ZARAMA «Bostak bat»
IMANOL «Muga beroetan»

DENETARIKOAK

FRESQUISIMO «Exitos Poligram»
JULIO IGLESIAS «Raices»
LOQUILLO Y LOS TROGLODITAS «A por ellos que son pocos y cobardes»
PAUL MCCARTNEY «Flowers in the dirt»

MARMARREAN ETA AUTUAN

Txakurren Gorozkiak

Azkenengo aldi honetan animaliei, eta batez ere txakurrei buruz asko hitzegiten ari da, bai kalean bai komunikabide ezberdinetan. Honetaz gain, jadanik martxan dago Udaleko Sanitate eta gizarte Ongizate departamentuak etxeko abereen jabetzari buruz egindako Ordenantza. Bertan batez ere txakurren jabeek bete behar dituzten printzipioak azaltzen direlarik.

Dena den, badirudi une honetan kaleko jendea gehien arduratzen duen arazoa txakurren gorozkiena dela. Egia baldin bada ibilbideak, parkeak... txakurren gorozkiz horniturik daudela, egia da baita ere zenbait gehiegikeria entzuteko eta irakurtzeko aukera izan dugula: honela, Tomas Zubizarretak bere artikulu batean zioenez, txakurren gorozkia, kotxe eta fabrikekin batera, kutsadura agente garrantzitsuenetarikoa da.

Beraz, badirudi epe labur batean txakurra gizakiaren laguna izatetik gizakiaren etsaia izatera pasatu dela.

NAHIA EZINAREN GAINETIK DAGOENEAN

Ez dira Egoitz eta Ainhize edo Asier eta Enara, Mohamed eta Sana dira, euskaraz parra-parra

Mohamed eta Sana anaiak Eibarren bizi dira betidanik beren guraso eta bi arrebekin, beraien gurasoak orain dela 15 urte inguru Marruekos utzi eta hona etorri zirelako lan bila. Hemen, Urkizuko eskolara joaten hasi ziren, eta baita euskera ikasten ere.

Mohamedek 7.maila bukatu du, eta Sanak bostgarrena. Eurek esan digutunez, asignatura guztiak euskaraz ikasten dituzte, bat edo bi ezik. Segiduan konturatu gara, beraiekin hizketan, euskaraz hitzegiteko duten erreztasunaz, behar bada hizkuntzak ikasten ohitura daudelako marrokiera, euskara eta gaztelera menperatzen dituzte. 3. mailan dabilen arreba txikienak ere euskaraz hitzegiten du, nagusienak, ordea, oso gutxi daki, Mohamed eta Sanak esan digutenez.



Horra hor, bada, hiru hizkuntza edo berbeta ikasi eta ikąsten diharduten umeen ejenplu edo adibide esanguratsua; ahalegina eta gogoa uztartu eta elkartu ezkero ez dago ezinezkorik, aitzakiak ez du nahia alboratzen.

Horretaz aparte, bistan dago hizkuntza bat baino gehiago batera ikasteak ez duela mesede besterik egiten, umearen zentzu logikoa eta nortasuna aberasten duelako. Hor daude Sana eta Mohamed-en adibideak.

Zelan hasi zineten euskara ikasten?

«Gure gurasoak Marruekosetik etorri ziren lanaren bila gu jaio baino lehen. Horrela, eskolara joaten hasi ginenean hasi ginen euskara ikasten».

Marrokieraz ere egiten duzue berba, ezta?

Bai, txikitatik dakigu marrokiera, eta idazten ere badakigu, gurasoek erakutsi digute eta. Etxean erderaz eta marrokieraz hitzegiten dugu, nahiz eta anai-arreben artean erderaz mintzatu».

Udaletxeko kolonietan ibili zarete, ezta?

«Bai; Gabonetan ibili ginen Udaletxeko kolonietan, eta oso gustora gainera. Kolonietan euskaraz hitzegiten genuen. Baina eskolako beste umeekin beti erdera egiten dugu» (barre egiten dute).

Zer diozue Marruekosi buruz? Joaten zarete hara?

«Bai, Abuztuan joaten gara, aitak oporrak hartzen dituenean, eta zehazki Tanger aldera. Hona, Eibarrera, ez gara gu bakarrik etorri, beste senitarteko batzuk etorri dira. Gero, Barcelonan eta Belgican beste batzuk ditugu».

Erlijioari dagokionez, zeuek ere «Ramadan»a errespetatzen duzue?

Bai; Ramadan egunetan (30 egun izaten dira) goizeko lauretan jeikitzen gara, eta asko gozaltzen dugu egun guztiko energiak hartzeko. Horrela, gabeko hamarrak arte ezin dugu ezer jan, eta ezta edan ere. Bestalde, txerria jatea debekatua daukagu, zeren badago txarra den zati bat, baino ez dakigu zein zati den».

Gustora zaudete hemen? Marruekosera joango zinateke bizitzera gu utzita?

«Ez Eibar ez genuke utziko».

Mujika Mh HARATEGIA
Odolosteak Txorizoak Bildots eta Txahal okelak
Bidebarrieta,12 Urkizu,18 - Telf 120194

ORIOTARRA
Jatetxea
¡Giro jatorra!
Eibar
Tf. 11.70.24

GIZONENDAKO MODA
SASTRERIA
Astigarraga
Bidebarrieta 8
Tf. 11.22.23

GURBIL
Pizzeria Jatetxea
isasi kalea-1
eibar tf - 111152

Comercial ETESA
BULEGO-MATERIALA-ALTZARIAK
BIDEBARRIETA, 66
TELEFONO 121973-74
20600 EIBAR GIPUZKOA

pintxo bar
San Juan 3 - Telf 700899

Eibar herri osasungarrien plangintzan

Udalean jakin izan dugunez, europa mailan herri osasungarrien planean sartuta dago Eibar. Honek, hemendik urte batzutara ondorio onak izango ditu, Europako zenbait herritan gertatu den moduan.

Arkitektura liburuetan Europan gaizkien planifikatutako herrien exenplutzat aipatzen da. Gerra ondorenean izan zen hau ondo egiteko garaia baina ondoren ere ez da ezer asko egin. Gaur egun industriak kanpora egin duen arren, etxe eta garaje eraikuntza oso haundia da. Etxe hauek dauden zulo guztiak betetzen dituzte eta ez dago berdegunerik. Europan bataz besteko lau metro karratu berdegune dute pertsonako, guk hor dugun partea hutsaren parekoa da. Untzagako eta Urkuzuako plazak kenduta Amañan, Urki, Jardineta eta beste auzoetan bizi direnek ez dute parke edo plazarik. Zelairik ikusi nahi bada ahuntzak bezala mendira jo behar.

Honetaz gainera ba daude ibaiaren arazoa, trafikoa eta bariantearen projektua, kutsadura, zaratak eta abar luze bat. Ego ibaiaren kutsadura oso altua da; Ingurugiro Batzordeak botatzen diren zaborrak eta likidoak kontrolatzeko plan bat osatu zuen eta orain datuak biltzen ari dira.

Hor dago herri erditik igarotzen den trafikoa lasaitzeko bariantearen projetuka. ERAIKI. S.A.-k egindako ikerketaren arabera trafikoaren %75a herri barrukoa da, eta 13 urte barru auto pista publikoa izango da.

Arazoak arazo, bistan dago, eibartarrok geure txokoa maite dugula. Baina bizitza kalitatearen arloan, oraindik ere dexente aurreratu beharra daukagu. Ea herri osasungarrien plangintzak behar-beharrezkoak ditugun ondorioak ekartzen dizkiguna eta bizitza kalitatea hobetzen dugun.


Kontxi Kerejeta

ZER GUSTATUKO LITZAIZUKE ALDATUTA AURKITZEA EIBARREN OPORRETATIK ETORRI ONDOREN?



ARRITXU. 34 urte. Etxekoandrea.

Oporretatik bueltatzerakoan Eibarren dagoen trafikoa aldatuta aurkitzea gustatuko litzaidake.



JOSE MARI. 22. urte Ikaslea.

Zer gustatuko litzaidake aldatuta aurkitzea? Alkatesa, eta seriozki hitzegiten trafikoa.



BENITO. 67 urte. Jubilatua.

Gauza ona izanik, edozer gauza aldatuta aurkitzea egokia litzateke.



LOREA. 9 urte. Ikaslea.

Oporretatik etortzerakoan kaleak garbiagoak eta kontaminazio gutxiago aurkitzea nahiko nuke.



IMANOL ETA ALBERTO. 11. urte. Ikasleak.

Eibarren kontaminazio gutxiago eta kaleak hain zikinak ez egotea gustatuko litzaiguke, eta baita jolasteko pista eta leku gehiago aurkitzea ere.



CLEMENTINA. 64 urte. Etxekoandrea.

Bi gauza aldatuta aurkitzea gustatuko litzaidake: lasaitasuna eta segurtasuna.



MARISOL. 36. urte Saltzailea.

Oporretatik itzultzerakoan giroa aldatuta ikustea gustatuko litzaidake: giroa garbiagoa egotea, berdegune gehiago aurkitzea... Hau lortzeko ahaleginak egin beharko liratekela uste dut.



ASIER. 53 urte. Langilea.

Gauza asko dudari gabe: kaleak, abandonaturik aurkitzen diren lorategiak...



ELIXABETTE. 36 urte. Irakaslea.

Kaleak egoera hobeagoan aurkitzea gustatuko litzaidake.

AGENDA

• ZINEMA ABUZTUAN

EGO-IBAR ZINE KLUBak, UDALEKO KULTURA SAILAren laguntzaz antolaturik.
UNTZAGA ZINEMAN, GAUEKO 10,30etan.


1an: «VICTOR O VICTORIA». Blake Edwards
3an: «VERTIGO». Hitchcock.
8an: «LA ULTIMA LOCURA». (Silent Movie USA 1976) Mel Brooks
10an: «REGRESO AL FUTURO» Robert Zemeckis
16an: «LA ESCOPETA NACIONAL». L.G. Berlanga
17an: «LA MUERTE TENIA UN PRECO». Sergio Leone


DENBORAPASEN SOLUZIOAK

GURUTZEGRAMA TTIPIAK

Ezker eskuin: 1.- Kakaztu. 2.- Adituak. 3.- Non. Bur. 4. Tropela. 5.Oa. Aran. 6.- Ito. O. I. 7.- Auskada.
Goitik behera: 1.- Kantoia. 2.- Adoratu. 3.- Kino. Os. 4.- At. Pa. K. 5.- Zuberoa. 6.- Taula. D. 7.- Ukrania.

Ezker eskuin: 1.- Hamaika. 2.- Atariko. 3.- Uzta. Kr. 4.Taxua. T. 5.- Amu. Loa. 6.Tarrat. 7. Uranioa.
Goitik behera: 1.- Hautatu. 2.- Atzamar. 3.Matxura. 4.Arau. Rn. 5.- II. Alai. 6.KKK. Oto. 7.Aorta. A.





GEUK ERE OPORRAK, ZE ARRAIXO, GERO!!

Kaixo irakurle: geuk ere, zeuk moduan, oporrak hartuko ditugunez, Abuztuan ez dugu ''... eta kitto''rik egingo. Hori dela eta ez gara irailaren amaiera arte zurekin izango. Laster arte. Ondo pasau ta gutxi gastau.

NORK ZER

• ***Koordinatzailea:***

Fernando Muniozguren

• ***Erredakzio-taldea***

Ana Aizpurua
Idoia Arrillaga
Mireia Ugarteburu
Idoia Irazola
Fernando Muniozguren

• ***Argazkilariak***

Mikel Gorosabel
José Valderrey

• ***Maketazioa***

José Valderrey

• ***Komikia***

Ander Gisasola

• ***Marrazkiak***

Leire Astigarraga

• ***Inprimaketa***

Antza

